Arrasate
PRESS
ARRASATE / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 27a / 612. zenbakia

# 2002. urteari begiratua

## ARRASATE

sustatu.com
interneteko profesional euskaldunendako albistegia
http://www.sustatu.com



# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. ☎ 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

## ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otalora lizentziaduna 18 ☎ 943 71 27 93

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72
- MARIA GARDOKI LEGORBURU. ☎ 670 52 19 34

## KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma ☎ 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzezino,6 ☎ 943 79 25 98
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika,Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 ☎ 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerias, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ☎ 659 58 66 89

## PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma ☎ 943 79 97 46

## PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerias, 56 ☎ 943 79 44 22

## KALEINKESTA/ Datorren urterako ze dago sobran?



**JULIO HERNÁNDEZ**
Langillie

Galizian pasau dana. Horrenbeste jente bertan behera ixtie. Politikuek petroliue garbiketan baiño gehixago, argazkixa ataraten juen die. Argi geratu da gobernu debille dala.



**EVA PANDO**
Langillie

Gauza asko egongo die sobran: inflaziñue, adibidez. Horretaz aparte, ekologixan gertatu dien desastre batzuk be sobran egongo die datorren urtien. Danak die inportantiek.



**EUGENIO MERTXANTE**
Langillie

Orokorrien sobran daguzenak esango dittut: batetik, mundu danien daguen agresibidadie datorren urterako sobran dago; bestetik, daguen langabezia tasie be sobran dago.



**ELISABETH GARAI**
Langillie

Pentsetan dot datorren urtien ez dala ezer sobran egongo. Herrixen aparkalekuek falta die, etxebizitzak falta die, umiek jolasteko leku gehixago biher daue. Horretxek, herrixari begira.



**JOKIN GARRO**
Langillie

Orokorrien esateko, datorren urtien pentsetan dot betiko konfliktuek sobran egongo diela. Arlo politikuez aparte, etxebizitzen preziuek horren garesti egotie be sobran egongo da.



**PEPI GOROSABEL**
Etxekoandrie

Ez da bat be errexa datorren urtien sobran ze egongo dan esatie. Argi dago Galizian pasau dana datorren urtien sobran daguela. Argentinako egoerie be ez da gutxiagorako.

## ETABARRUAN...


GAINBEGIRATUA /3
ONENA ETA TXARRENA /4-5
URTEA DATUTAN /6
URTEKO AZALAK /33
IRUDIAK /38

URTEARI GAINBEGIRATUA

**Urtarrila /8-11**
**Otsaila /12-13**
**Martxoa /14-15**
**Apirila /17-18**
**Maiatza /22-23**
**Ekaina /24**
**Uztaila /27**
**Abuztua /28**
**Iraila /29**
**Urria /30-35**
**Azaroa /36**
**Abendua /37**





## HERRITARRENBERBAK



### *Kaliforniatik Euskal Herrira*

**AMAIA MARTIARTU** / Diseinatzaile grafikoa

Ikeeeeeeeer!!!!!!!!!!! Ze moduz Arrasatetik? Honezkero Gabonetan murgilduta, ezta? Hemen, Estatu Batuetan, Gabon jaia ez da hain jai handia. Hainbeste kultura eta erlijio ospakizun daude: *Hannukkah* (judutarra), *Kwabzaa* (afrikar-amerikarra), Txinatar urte berria... Askok Gabon kristaua ospatu ere ez dute egiten.

Hemen gehienek *Thanksgiving* eguna ospatzen dute. Orain aste pare bat, Marthak bere etxean egun hori ospatzera gonbidatu gintuen, indioilar tremendoa jatera. Han, Martharen aita (mexikarra), neskalaguna (Singapurrekoa), Carlos (Venezuelakoa), Patricia (Puerto Ricokoa), Ramsi (Eskozia-Libanokoa), Lee (uggh... batek daki Asiako zein herritakoa) eta Joe, New Yorketik etorria. Ez dakit zein nahasketa den azken lagun hori, ezta biologikoki emakumea edo gizakumea den, eta zeini axola... Izugarri gustatzen zaizkit holako bazkariak. Beti dago berba egiteko gaia: nongoa zaren, nongoak gurasoak, noiz etorria, nolakoa jaioterria, familiarena, kulturarena, katuarena... Gau berean tripa gehiago asetzeko asmoarekin pizza bat erostera joan ginen. Pizzatokira sartu eta Libanoko-armeniar pizzeroak Mongoliako bezeroari: "Hola, amigo! Que pasa!".

**"Kultura eta nortasun propioa daukate eta AEBetan bizimodua elkarrekin eta nahasturik igarotzen dute"**

Eta mongoliarrak Tibeteko beste pizzeroari: "Hey, brother! What´s up!". Eta nik pizzeriatik irteterakoan: "Adios, amigos". Eta denok batera niri bueltan: "Adios, amigo, adios!". Eta nik pentsatzen dut, ze "inte-grazio" eta ze "grazio-inte". Jende horrek bere kultura eta nortasun propioa dauka eta horrekin lur zati honetan bizimodua elkarrekin eta nahasturik igarotzen dute. Horiek dira estatubatuarrak. Hori da telebistan agertzen ez den Ipar Amerika.



### *2002 ere badoa...*

**TXIPI ORMAETXEA** / Irakaslea

Azken idazkitxoen bidetik, honakoan ere gure auzoari buruzko zerbait aipatu gura nuen, hau da, datorren urtean 650 urte etorriko direla Gesalibar, Garagartza, Uribarri eta Udalak Arrasaterekin bat egin zutenetik, "independentzia" galdu zuenetik.

Baina Ikerrek gogorarazi dit hau dela nire aurtengo azken kolaborazioa. Eta orduan ohartu naiz urte hau ere, eurourtea eta zenbaki palindromoa izanagatik ere, hiltzera doala. Eta esango nuke ia konturatu orduko joan zaidala. Norbaitek esango dit: "Oso ondo! Denporie aguro pasetie seiñale ona dok". Ba nik alderantziz pentsatzen dut. Urtearen hasieran jarri nituen helburuak ez betetzeaz gain, egunak, asteak, hilabeteak haien kontzientzia handirik izan barik pasatu zaizkidalakoan nago.

**"Bizitzak zentzu handiagoa izateaz gain, gehiago eta zoriontsuago bizi zarela irudituko zaizu"**

Gauza berririk ez dut esango zoriontasuna dela denok gura genukeena esaten badut. Eta beharbada zoriontasun hori eguneroko gauza txikietan bilatu beharko genuke: lanaren ondoko atsedenean, umetxo horren irribarrean, beste egun bat bizitzeko aukera duzula ohartzean, amari eman diozun musuan, bazkalosteko biaotxoan, barre egitean (osasunerako ezin hobea ei da), mendira egin duzun osteratxoan, espetxean dagoen lagunak idatzi dizun gutun hunkigarrian, lagunekin garagardo bat hartzean, maite duzuna laztantzean...

Horrela, gauzatxo horietan guztietan arreta jarriz eta dastatuz, bizitzak zentzu handiagoa izateaz gain, gehiago eta zoriontsuago bizi zarela irudituko zaizu.

Lehenengo neure buruari, baina zeuri ere, irakurle, zorionik handiena opa dizut.


**Arrasate PRESS**
Otalora Lizentziaduna, z/b
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Zuriñe Velez de Mendizabal
Ubane Madera,
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla,
Izazkun Bolinaga,
Natali Martinez
Imanol Elortza

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:
Eusko Jaurlaritzako Kultura saila
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Aramaioko Udala

ARRASATE PRESS
Egubakoitza / 2002ko abenduaren 27a

# ONENA ETA TXARRENA

*Onerako eta txarrerako gertakari asko izan dira azken 365 egunetan, bai Arrasaten, baita Arrasatetik kanpo ere. Hala, gertakari on eta txarrak aukeratzea eskatu diegu hamazazpi herritarri. Batzuek herriko kontuen gainean egin dute berba, eta beste batzuek kanpora begiratu dute. Eta gertaera txarrak aukeratzea gertaera onak aukeratzea baino errazagoa izan da, haien esanetan.*



**RAKEL MURGIONDO**
Arizmendi Ikastolako irakaslea

**GOIKOBALU TXIKI**
Semea zenbat hazi den ikustea oso berezia izan da; eta osasuntsu, gainera. Horrez gain, azkeneneko urteotan Goikobalu Txikiko gazteek egin duten lanaren emaitzak ikusten ari gara.

**INDIBIDUALISMOA**
Munduko desberdintasun handiak aldatzea hain erraza dirudien arren, aldatzeko aurrerapausorik ez ematea. Arrasatearrak geroago eta indibidualistagoak gara, hiritarrak bezala.



**EDORTA AYASTUY**
Arrasate Musikaleko irakaslea

**BARENBOIMEREN APUSTUA**
Daniel Barenboimek Ekialde Erdialdeko musikariekin kontzertuak eman ditu elkarbizitzaren alde. Bestalde, Arrasateko hezkuntzaren plan estrategikoak euskarari bultzada eman dio.

**ETXEBIZITZEN SALNEURRIA**
Etxebizitzen salneurrien igoera izugarria izan da gure ibarrean, baita Euskal Herrian ere. Horrez gain, Arrasate Musikaleko eskolaren egoera barrutik eta kanpotik nahiko eskasa da.



**JOSU OTADUI**
Erretiratua

**EAJ ETA OSASUN KONTUAK**
EAJ ez da inoiz politikagintzan benetan busti, eta aspaldian, esaterako, oso jarrera epela erakutsi du. Bestalde, aurten, osasun arazoak izan ditut, eta gaizki pasatu dut.

**NAFAR ERREINUAREN ALDE**
Oso hunkigarria izan zen Industria Museoaren inaugurazioan herriko azkeneko errementariak omendu izana. Baita Orreaga taldeak Nafarroako erreinuaren alde egindakoak ere.



**ARANTZA OZAETA**
Irakaslea

**PORTO ALEGREKO BILKURA**
Orain arte jarraitu dugun garapen modeloa aldatzeko unea iritsi da, eta Porto Alegreko bilkura egin zen horretarako. Proposamen berriak entzuteko bilkura izan zen.

**POBREZIA ETA GERRA NAHIA**
Ekonomiaren globalizazioak ondorio latzak dakartza, eta horren erakusgarri dira Argentinako umeen irudi tristeak. Politikan, AEBek fikziozko etsaia asmatu dute gerra egiteko.



**AITOR ITURRIAGA**
Udal langilea

**URBANOAREN ERABILERA**
Cerrajerako erakusketa martxan jarri izana, etorkizunean industria museoa egiteko. Eta herri autobusaren erabilerak izan duen igoera, horrek autoa gutxiago erabiltzea dakarrelako.

**MINBIZI KASUEN IGOERA**
Premian dauden familiendako Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak murriztu izana. Udalek hartu behar izan dute horren pisua. Eta ibarrean minbizi kasuak gehitu izana.



**SAGRA LÓPEZ**
Feminista

**UDALBILTZAREN LANA**
Udalbiltzak daraman kanpainari –zehazki, Eskubideen Aldeko Karta eta herrien eskubideen aldeko nazioarteko konferentzia– oso positibo deritzot. Oso ekimen garrantzitsuak dira.

**BATASUNARI EGIN DIOTENA**
Batasuna alderdiaren legez kanporatzea izan da urteko txarrena. Hori bezain ezkorra izan da alderdi eta talde abertzaleek jasotako erasoen aurrean izan duten batasun eta erantzun eza.



**JOSEBA EZPELETA**
Euskaltzalea

**PLAN ESTRATEGIKOA**
Arrasateko Euskalgintzako 14 elkarteok Plan Estrategikoa diseinatu dugu. Pentsamendu bakarraren eta neoliberalismoaren aurrean beste mundu bat posible dela sinisten dugunak.

**NATURAREN TXIKIZIOA**
20 urteren ostean, Eusko Jaurlaritzaren ustetan euskara jakitea ez ei da derrigorra. Horrez gain, azpiegitura handiek naturan egiten duten txikizioa azpimarratuko nuke.

TTUKUN
• Fotokopiak
• Liburu josteak
• Fotokopiak koloretan
• Planoen kopia
• Offset-a
Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

Gambrinus
garagardotegia
• Menua:
bazkariak eta afariak
• Karta
• Errazioak
• Pintxoak eta kazuelatxoak
Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Mobiliario
ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



**JOSU ZUBIA**
Mondra taldeko entrenatzailea

### OSASUN ONA

Ez da batere erraza urteko onena eta txarrena zein izan diren erabakitzea. Pertsonalki, esango nuke bai nik bai nire ingurukoek ere osasun ona izan dugula, eta hori izan da onena.

### 'PRESTIGE'

Hau ere ez da batere erraza, baina urteko gauza txarrena *Prestige* itsasontziaren hondoratzea izan dela esango nuke. Ondorioak ikusi egin beharko dira, baina larriak izango dira.



**MARI FRAN ALONSO**
Atleta

### NEURE BURUAREKIN POZIK

Urteko gauza onena: arlo profesionalean zein pertsonalean jarritako helburuak bete egin ditudala. Egindakoarekin pozik nago, eta hori oso garrantzitsua dela uste dut.

### GAIXOTASUNA

Familian gaixo dagoen pertsona bat daukagu, eta hori izan da urteko gauza txarrena. Laguntzen ahaleginduta ere, hark sufritzen du gehien, eta ezin dezakezu ezer egin.



**ANDONI ZUBIAGA**
Amaia Udal Antzokiko langilea

### ROCK-AND-ROLL TALDEA

Aurten, munduko roc-and-roll talde onena sortu da. Taldearen izena The Honky Tonks da, eta horixe da, nire ustez, urteko gauzarik onena. Anaia eta biok gaude taldean. (Barreak).

### FAXISMOAK INDARRA

Batetik, faxismoak mundu osoan daukan indarra azpimarratuko nuke, eta Bush eta Aznar dira liderrak; bestetik, Galizian petrolioarekin gertatzen ari denak pena handia ematen dit.



**AITZIBER ARANBURUZABALA**
Arrasate Irratiko arduraduna

### LAGUNTZEKO PREST

Herritar askok beharra dagoen lekuetan boluntario gisa lan egiteko daukaten gaitasuna. Izen asko daude, baina Amaia Arrizabalaga eta Iñaki Agiriano azpimarratuko nituzke.

### EUROAREN BIRIBILTZEA

Urtarrila ezkero euroarekin ari gara gora eta behera, eta ekarri duen prezioen biribiltzea ez da albiste ona izan. Gauzak garestitzeko aprobetxatu dute, eta poltsikoan asko nabaritzen da.



**RAFA MUNGIA**
Kazetaria

### ESKAINTZA KULTURALA

Aurten, eskaintza kultural handiagoa izan da herrian: kontzertu gehiago, herriko jaiak biziago, antzerkiak... Baina asko dago egiteko, eta pena da zinemara joateko Gasteizera joan behar izatea.

### ETXEBIZITZEN EGOERA

Etxebizitzen prezioak eta herrian autoak aparkatzeko dauden arazoak kritikatzeko modukoak dira. Multak jartzearekin ez da guztia konpontzen, irtenbide hobeak behar dira.



**AMAIA ARRIZABALAGA**
Internazionalista

### HERRI MUGIMENDUAK

Aurten, fenomeno aipagarri eta ona gertatzen ari da: herri mugimendua hartzen ari den indarra. Horrekin batera, aipatzekoa da boluntarioek egiten duten lana.

### ESKUINEKO POLITIKA

Gauza asko izan dira kritikatzeko modukoak. Horien artean, azpimarratzekoak dira eskuineko politikarien harrotasuna, gogorkeria, biolentzia eta intolerantzia.



**ENEKO BARBERENA**
Idazlea

### EZER ERE EZ

Urte beltza izan da, eta ez dut ezer gogoangarririk aurkitu. Zerbait azpimarratzekotan, Iñurrategiren neguko zortzimilakoa, AGAKOren lana, Elorrioko Gazte Topagunea eta IAren lana.

### EUSKALDUNEN AURKAKOAK

Euskalduna izatea arriskutsu bilakatu da, are gehiago abertzale eta ezkertiarra izanda. Madrilgo botere banaketa eza konfirmatu da. Horrez gain, auto judizialak, Alderdien Legea...



**AINHOA LARRAÑAGA**
Abokatua

### HERRI IZAERA ERAKUTSI

Batasunaren legez kanporatzearen kontra egiteko ideologia askotariko jende asko elkartu zen Bilbon. Injustizia horren kontra egiteko herri izaera erakutsi zuten euskaldun askok.

### INGURUMENARI KALTE

Euskal Herrian AHTren lanak bizkortu egin dira, eta lan horiek, kasu askotan, ez dute legea errespetatzen. Horren aurrean euskal gizartea lo dago, ez dugu erreakzionatzen.



**JULIA MONGE**
Irakaslea eta feminista

### ESKOLA BATERATU PUBLIKOA

Hiru urte lanean igaro eta gero, ikasturte honetan Arrasatek Eskola Publiko Bateratua izan du. Une txarrak gainditu eta gero martxan dagoen ekimen hori oso positiboa da.

### EMAKUMEEN TRATU TXARRAK

Badira gauza batzuk aldatzen ez direnak: emakumeen tratu txarrak, adibidez. Horrez gain, politikoek ez diete batere garrantzirik ematen gizarte laguntzei, eta elbarriak ahaztuta daude.



**EDURNE MARAÑON**
Anbulatorioko arduraduna

### GRIPEAREN TXERTOA

Aurten, 65 urtetik gorako biztanleen %80k gripearen kontrako txertoa hartu dute, eta datu hori pozteko modukoa da. Kontzientziazio kanpaina ona egin da portzentaje hori lortzeko.

### ARGENTINAN GOSEZ HILTZEN

Urteko gauza txarrenak aukeratzeko zailtasun handiak izan ditut. Azken egunotan, Argentinan gosez hiltzen ari diren umeen irudiak oso gogorrak izan dira niretako.

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

BOLIÑETE
OILASKO ERRETEGIA
Bertan jateko edo eramateko.
Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

# URTEA DATUTAN

*Urtekariak urtea laburtzea izaten du helburu, eta hori ez da batere erraza. Geroago eta gehiago erosten ei dugu, baina aurten, eurotan ordaindu dugu erositakoa. Datuen arabera, Arrasateko Renault-ek urte biribila izan du. Horrez gain, etxean gaztetxoek erabakitzen dute zer ikusi eta zer entzun: 'Harry Potter' eta 'Shin Chan' izan dira protagonistak.*




## LIBURU salduenak

EUSKARAZ
1. **'ARRASATEKO EMAKUMEAK XX. MENDEAN'**
   Emakumeen Kontseilua
2. **'SPrako Tranbia'**
   Unai Elorriaga
3. **'Bost idazle'**
   Hasier Etxebarria
4. **'Itsaslabarreko etxea'**
   Miren Agur Meabe

GAZTELANIAZ
1. **'ES FÁCIL DEJAR DE FUMAR, SI SABES COMO'**
   Allen Carr
2. **'Los hijos del hogaiz'**
   Toti Martinez de Lezea
3. **'Vivir para contarla'**
   Gabriel García Márquez
4. **'Amanecer en el desierto'**
   Maris Dirie



## DISKO salduenak

EUSKARAZ
1. **'BETIZU'**
   Shin Chan
2. **'Nere ekialdean'**
   Benito Lertxundi
3. **'Heldu artean'**
   Mikel Urdangarin
4. **'Bla, bla, bla, stop'**
   Txapelpunk

GAZTELANIAZ
1. **'ESTRELLA DE MAR'**
   Amaral
2. **'Que pides tu'**
   Alex Ubago
3. **'Dímelo en la calle'**
   Sabina
4. **'Marea'**
   Besos de perro




## FILM ikusienak

1. **'AMELIE'**
   Jean-Pierre Jeunet
2. **'Juana la loca'**
   Vicente Aranda
3. **'Harry Potter'**
   Chris Columbus
4. **'El señor de los anillos'**
   Peter Jackson
5. **'La edad de hielo'**
   Chris Wedge
6. **'Hable con ella'**
   Pedro Almodovar
7. **'El otro lado de la cama'**
   Emilio Martínez Lazaro
8. **'El crimen del padre Amaro'**
   Carlos Carrera
9. **'El hombre que nunca estuvo allí'**
   Joel Cohen
10. **'Scary movie-2'**
    Keenen Ivory




## BIDEO hartuenak

1. **'HARRY POTTER'**
   Chris Columbus
2. **'The Mexican'**
   Gore Verbisnki
3. **'The Score'**
   Frank Oz
4. **'El señor de los anillos'**
   Peter Jackson
5. **'Una mente maravillosa'**
   Ron Howard
6. **'Corazones en Atlantida'**
   Scott Hicks
7. **'Atando cabos'**
   Lasse Hallstrom
8. **'John Q'**
   Nick Cassavettes
9. **'Amelie'**
   Jean-Pierre Jeunet
10. **'En lo más profundo'**
    David Siegel



## AUTO salduenak

| | | |
|---|---|---|
| 1. | **MEGANE SCENIC** | 43 auto |
| 2. | **Renault Laguna** | 39 auto |
| 3. | **Renault Clio** | 37 auto |
| 4. | **Renault Megane** | 32 auto |
| 5. | **Ford Mondeo** | 26 auto |
| 6. | **Ford Focus** | 25 auto |
| | **Peugeot 307** | 25 auto |
| 7. | **Opel Astra** | 21 auto |
| 8. | **Opel Zafira** | 20 auto |
| 9. | **Citroën Xsara** | 17 auto |
| 10. | **Peugeot 306** | 18 auto |
| 11. | **Nissan Primera** | 14 auto |
| 12. | **Opel Corsa** | 13 auto |

## EGUNKARI salduenak

1. 'EL DIARIO VASCO'
2. 'Gara'
3. 'Marca'
4. 'Mundo Deportivo'
5. 'Deia'

## ALDIZKARI salduenak

1. 'PRONTO'
2. 'Hola'
3. 'Cuerpomente'
4. 'Muy Interesante'
5. 'PC Plus'

## Egunik BEROENA

2002ko ekainaren 17a

**37 ºC**

## Egunik HOTZENA

2002ko urtarrilaren 12a

**–3 ºC**

## Egunik EURITSUENA

2002ko urriaren 9a

**47,9 L**

## BIZILAGUN kopurua

**23.166**

## Jaiotakoak

**142**

## Hildakoak

**214**

## Etorritakoak

**412**

## Joandakoak

**608**

## ALDEA

**–268**

**Arrasaten joan den urtean baino 268 lagun gutxiago bizi gara: alde batetik, jaio direnak baino pertsona gehiago hil direlako; eta bestetik, jendea herrira etorri bada ere, herritik joan direnak askoz ere gehiago direlako. Horren arrazoietako bat hemengo etxebizitzen prezioak izango dira, seguru.**

Datu horiek ofizialak dira, eta joan den urtekoak dira. 2002ko datuak 2003an onartuko dituzte.





EGIN DEZAGUN BAKOITZAK GURE AHALEGINTXOA

Zahar Berri
Pablo Uranga 4, behea
Telf.: 943 711 721
943 771 228
zaharberri@aedelkartea.com

# Zenbaki
## AHOLKULARITZA

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua)
ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
posta elektronikoa: zenbaki@zenbaki.es
webgunea: www.zenbaki.es



# UGARTE
## AROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

K21 KALITATEA

Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak











# URTARRILA




## Lapurretan egin zuten Elkoron

Seber Altuben dagoen Elkoro dendan lapurretan egin zuten urtarrilaren 8an. Lapurrek ostutako auto bat erabili zuten helburua lortzeko: erakusleihoa hautsi eta hainbat tresna eraman zituzten. Lapurreta goizaldeko ordu bietan gertatu zen, eta inguruko bizilagunek ez zuten ezertxo ere entzun. Kalteak 6.000 eurotik gorakoak izan ziren. /2002-01-11

## HILEKO ESALDIA

**"Arabiar kulturan, emakume lirainek baino gehiago, gorputz handiko emakumeek egiten dute dantzan"**

**J. ALBENIZ** / DANTZA IRAKASLEA

2002-01-18

## HILEKO DATUA

# 11.000

**AUTO ZEUDEN URTE HASIERAN ARRASATEN**

Udalak aditzera eman zuen 11.000 auto inguru zeudela herrian: familia bakoitzeko ia automobil bi, hain zuzen ere. /2002-01-18

## AIPAGARRI



**JON ALDANONDO**
**GOITBko langile ohia**

Hamar urte luzez ATBn eta GOITBn lanean ibili eta gero, Goiena utzi zuen, abenduan. Ezkiotarra jaiotzez, Ormaiztegin bizi da Jon Aldanondo. Azken urteotan Goienaren hedatze prozesuan ibili zen. /2002-01-11



**GAIZKA MENA**
**Marrazkilaria**

Gaizkak lehenengo erakusketa izan zuen ikusgai gaztetxean. Bere kasa ikasi zuen marrazten, eta zuribeltzezko irudi surrealista geometrikoak marrazten ditu. Txikitan aita marrazten ikusteak animatu zuen. /2002-01-11



**MAIRA CARRASCO**
**Snowboard irakaslea**

Hogeita bost urteko mondragoetarrak lau urte daramatza Baqueira Beret-en snowboard irakasle gisa. Haren hitzetan, hantxe daude Espainiako pista onenak, baina Baqueiran bizimodua oso garestia da. /2002-01-18





Jon Ander Arrizabalaga • 10 urte

Oporrak dira eta
alaitu den-denak
alde batera utzi
arazo sakonak
Urte berria dator
berriz zorionak
eta guztiok ondo
pasatu gabonak!

4. maila • 9-10 urte


Lierni Etxebarria • 6 urte

arrasate
Herri Eskola



euskara da oparirik onena



**Zabal itzazu mundura jatorrizko bertsioan**

Hemen duzu zure ametsetako oparia, hegoaldeko itsasoak zeharkatzeko, altxorrak aurkitzeko, bizitzeko, ederki pasatzeko, familian gozatzeko, lagunartean aritzeko, hemen duzu bizitza osorako oparia.

100 produktutik gora dituzu aukeran. Bideorik onenak, mahai jokoak, bideo-jokoak eta CD-ROMak dituzu zain. Alaiak, entretenigarriak, zirraragarriak eta euskaraz!

Bete ezazu txartel hau eta bidali aldizkariaren helbidera **-Goiena. Nafarroa etorbidea, 2. 20500 Arrasate-**
Bideoak, bideojokoak, mahai jokoak, haurrentzako puzzleak ... ditugu zuri oparitzeko.

Izen-abizenak ______________________________

Helbidea ______________ P.K ______________

Herria ______________ Tel. ______________

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

euskaraz? bai.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes

Deutsche Post World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE




Zure bidalketa zerbitzua Europa osora iristen da.




**Jakin, badakizu, konfiantzaz utz ditzakezula gure esku Espainia eta Portugalerako bidalketak.**
Nahi al duzu zerbitzu hau bera Europa osorako?

Euro Expressekin dagoeneko baduzu: izan ere, paketeak garraiatzeko eta banatzeko Europako merkatu bakoitzeko liderrek osaturiko enpresa-sarea baita. Gisa horretan, zure bidalketa doan lekura doala ere, inguruak ongien ezagutzen dituztenek egingo dizute zerbitzua.

Guipuzcoana Euro Expressekook kalitate/prezio erlazio bikainaz garraiatzen ditugu paketeak eta paletak. Hortaz, zergatik ez duzu gure esku uzten Europara zuzenduko duzun hurrengo bidalketa?

www.guipuzcoana.com

Harremanetarako: 943 763 642 - San Juan Erreka 33, E-20570 Bergara - bergara@guipuzcoana.com

Ezagutza, bertakoa. Esperientzia, Europa-mailakoa.

GUIPUZCOANA
EURO EXPRESS

## ALBISTEIZANZEN

DEBAGOIENEAN

### Argia saria irabazi zuen GOIENKARIAk

ARGIA saria irabazi zuen GOIENKARIAK, prentsa idatzizko arloan. Bere sailean, "proiektu berritzailea" zela azpimarratu zuten sariaren emaileek. 2002-01-25

EUSKAL HERRIAN

### Ikurrina legeztatu zela hogeita bost urte

Ikurrina legeztatu zela hogeita bost urte bete ziren, eta ospakizunak izan ziren Euskal Herri osoan. Gure ibarreko alkateek egindako lana gogoratu zen. 2002-01-19

MUNDUAN

### Euroa, moneta berria, azkenik indarrean

Urtea moneta berriarekin hasi zuten 300 milioi europarrek. Euroaren balioa 166,386 pezetatan finkatu zen. Martxora arte iraun zuen baita pezetak. 2002-01-01

## ORAIN ETA HEMEN



### Errausketa-labea inauguratu zuten

Urtarrilaren 18an, San Kristobal hilerriko errausketa-labea inauguratu zuten. Zerbitzu horrek ez du batere kutsatzen, eta beste leku batzuetan baino merkeagoa izango da errausketa zerbitzua. Ekimen horren helburua da herritarrei zerbitzua ematea, eta ez dirua ateratzea. Inaugurazio ekitaldian izan ziren, besteak beste, Xabier Zubizarreta alkatea, Jose Mari Urizar *Ametzu* Zerbitzu Saileko burua eta Juan Jose Sáez zinegotzia. Errausketa zelan egiten den erakutsi zuten, eta errausketak pare bat ordu irauten duela adierazi zuten. Bitartean, familiak telebista gelatik ikusiko du errausketa. Hasiera baten, eguneko errausketa bat egingo da. /KAZETARIAREN IZENA

EKOLOGIA

### Kiroldegiko eguzki plakak martxan jarri zituzten

Musakolako kiroldegiko igerilekuan dauden plakak martxan jarri zituzten, urtarrilean. Horren ondorioz, Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak sinatutako hitzarmenaren lehen urratsa bete zen. 60 m²-ko azalera dute, eta kiroldegiko energiaren %10 sortuko dute. /2001-01-11

SASKIBALOIA

### Gabonetako txapelketa Eugenio Ayala deituko da aurrerantzean

Monseñor Milingo eta Gaurdalako taldeak izan ziren final berezíko finalistak. Ez ziren protagonista bakarrak izan: Eugenio Ayala zena eta haren gurasoak izan ziren benetako protagonistak. Hala, saskibaloi txapelketa horrek Eugenio Ayala izena estreinatu zuen. /2002-01-11

ZORTZI HILABETEZ EGON ZEN AUSTRALIAN ETA ASIAN /2002-01-18



**XABIER ELGEZABAL**
BIDAIAZALEA

### "Malasiako natiboak gai dira ezer barik oihanean bizi izateko"

**Zortzi hilabete igaro zituen Australia eta Asia aldean, turista gisa eta lanean. Akilesen orpazurdan min hartu zuen Zeelanda Berrian zegoela, eta etxeratzeko ordua iritsi zitzaion.**

KULTURA

### Sei film labur ikusteko aukera Amaia Udal Antzokian

Ezohiko zinemaren zaleek Euskal Herrian edo euskaldunek egindako sei film labur ikusteko aukera izan zuten, hilaren 24an. Jon Anduezaren *Aita Guria* estreinatu zuten, eta, horrez gainera, Anduezak eta Udaleko Kultura Sailak lortutako film labur sorta ere eman zuten. /2002-01-18

ATLETISMOA

### Unai Sarabiak eta Jonathan Pérezek errekor berriak

Unai Sarabiak 60 metroetan Mondragoeko errekorra egin zuen: zazpi segundo eta bederatzi ehunen, hain zuzen ere. Eta, bestalde, Jonathan Pérezek pertikajauzian 4,75 metroko jauzia egitea lortu zuen. Horrenbestez, herriko atletek bolada onean zeudela erakutsi zuten. /2002-01-11/18

ORAIN ETA HEMEN

### Duintasunez hiltzeko eskubidearen aldeko testamentua

Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen Aldeko Elkarteak Bizi Testamentuaren Erregistroa egitea eskatu zuen. Elkartearen eskaera zen sendabiderik ez duen gaixotasuna izanez gero, tratamendua jaso edo ez jaso erabakitzeko eskubidea izatea, lasai hiltzen uzteko, alegia. /2002-01-18






# OTSAILA



*"Iaz egin beharreko lana aurten egin dugu: liga irabazi, alegia"*

**JOSU TORNAY** / XAKE JOKALARIA

2002-02-08



*"Olandixoko tunela egiteko ehun mila pezeta ordaindu beharko genuke bakoitzak"*

**IKER EZPELETA** / ANTIDESARROILISTA

2002-02-08

## HILEKO ESALDIA

**"Argentinan argi eta garbi ikus daiteke funtzionarioak ustelduta daudela, polizia barne"**

**LUIS EZKURRA** / ARGENTINAN BIZI DA

2002-02-01

## HILEKO DATUA

**7**

**LAPURRETA SALAKETA EGIN ZITUZTEN URTE HASIERATIK**

Urte hasieratik otsailera, zazpi lapurreta eta bost lapurreta saiakera izan ziren Arrasaten, komertzio eta enpresetan. /2002-02-15




### Jende asko gerturatu zen endokrinologia ikuskapenak egitera

Lagun Aro Aseguruek eta Sanitas-ek endokrinologia arloko ikuskapenak egiteko unitate mugikor medikalizatua jarri zuten Seber Altube plazan. Zerbitzu hori doan emateko, Madrildik furgoneta urdin bat etorri zen. Jende ugari gerturatu zen odoleko kolesterol maila, gorputzeko koipe maila eta tentsioa neurtzera. Positiboa, hortaz, ekimen hura. /2002-02-01

**IBAI-ARTEREN SARIA HARREMAN-ENDAKO IZAN ZEN**

Ibai-Arteren Gabonetako zozketan ez zen irabazlerik agertu, eta Harreman erakundeari eman zioten saria. /2002-02-08

**ZAINDARIAREN TXABOLA ERRE ZUTEN**

Santa Barbarako zaindariaren txabola erre zuten ezezagun batzuek, eta 7.000 bat euroko kalteak eragin. /2002-02-15

## AIPAGARRI



**IBAN GALÁN**
**Karateka**

Hamasei urteko gazte mondragoetarra Albaceten jokatu zen Espainiako Txapelketan izan zen, eta kadete mailan hirugarren izan zen Iban Galán. /2002-02-01



**JURGI CRISTÓBAL**
**Biologoa**

Jurgi bedoñarra da, eta Eusko Jaurlaritzaren beka baten bidez, 2003ko abendura arte albaitaritza tesia egiten ari da, Mexikon, tximinoak aztertzen. /2002-02-08



**IRAITZ AGIRRE**
**Idazlea**

Iraitzek Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketan Debagoieneko saria jaso zuen. Aurretik ere hainbat sari irabazitakoa da mondragoetarra. /2002-02-22

UR.ONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

*Urte berri on!*

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

## ALBISTEIZANZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### Fagorreko lau langile, istripuan hil, Iranen

Fagorreko lau langile hil ziren, Iranen gertatutako hegazkin istripu baten ondorioz. Arrasate, Markina eta Donostiako lau lagun ziren.

2002-02-12

▸ EUSKAL HERRIAN

### ETAko sei kide atxilotu zituzten Iruñean

ETAko sei kide atxilotu zituen Guardia Zibilak, Iruñean, kartzela-funtzionario bat hiltzeko asmoa zutenean. Seietatik, hiru Segi erakundetik zetozen.

2002-02-21

▸ MUNDUAN

### Milosevicen aurkako epaiketa hasi zen

Slobodan Milosevic Jugoslaviako presidente ohiaren aurkako epaiketa hasi zen. Genozidioa eta gizadiaren aurkako krimenak leporatu zizkioten.

2002-02-12

## ZERBITZUAK



### Edukiontzi berriak heldu ziren herrira

Debagoieneko Mankomunitateak aspaldi itxaroten ari ginen edukiontzi berriak jarri zituen herrian. Guztira, 170 edukiontzi jarri zituzten. Hala ere, ez zituzten herri osoan ipini. Esaterako, alde zaharrean ez zuten edukiontzirik jarri, eta ordura arteko sistema berak jarraitzen du inguru hartan. Otsailean, gure ohiturak aldatzen hasi ginen zaborrari dagokionez. /2002-02-22

HEGAZKIN ISTRIPUA

### Teheranen gertatu zen hegazkin istripuak, Arrasaten eragina

Hilaren 12an, berri latza zabaldu zen: Iranen 117 bidaiari zeramatzan hegazkin bat jausi egin zen. Bidaiarien artean Fagor Arrasate enpresako lau arduradun zihoazen, enpresa-bidaian. Berria jakin ahala, eta Arrasateko, Markinako eta Donostiako lantegiak itxi zituzten. /2002-02-15

ORAIN ETA HEMEN

### Cerrajerako torlojuak egiteko lantegiaren gaineko erreportajeak

Cerrajerako torlojugintza lantegian erabiltzen ziren makina eta prozesu batzuk oso zaharrak zirenez, haién testigantza gordetzeko argazki eta bideo erreportaje bana egitea erabaki zuen Gobernu batzordeak. Eta 1.044 euro pasatxotan zehaztu zuten proiektuaren kostua. /2002-02-01

ROSI OTADUIK IRABAZI ZUEN KARTEL LEHIAKETA /2002-02-01



### Aratusteetako hainbat pertsonaia batu eta margotu zituen

**Urtero legez, Aratusteak etorri ziren, baita jaiei zegokien kartela ere. Xabier Elgezabal, Gorka Zubizarreta eta Rosi Otadui izan ziren finalean, eta Rosi Otaduik irabazi zuen 360,61 euroko saria.**

ORAIN ETA HEMEN

## Auzo Lagunek azaroan eginiko kanporaketa, bidegabekoa

Auzo Lagun enpresak eskualdeko ospitalean lanean zebilen langile bati kontratua eten zion azaroan. Otsailean kanporatzea bidegabekoa izan zela erabaki zuen epaileak. ELA sindikatuak, egoera salatzeko, Auzo Lagunekin zituen harreman ekonomikoak apurtzea erabaki zuen. Ordu arte, ELAk ekimen bat egiten zuenean, enpresa haren *catering* zerbitzua kontratatzen zuen. Hil amaieran, enpresak berriro hartu zuen langilea, eta ELAren eta enpresaren arteko harremana bere onera itzuli zen. /2002-02-15




ELAren protestaldietako bat.



ARRASATE PRESS
Egubakoitza / 2002ko abenduaren 27a

# MARTXOA



*"Ingurumenaren gaineko hezkuntza zabaltzea da eskolaren helburua"*

**MARIBI VISITACIÓN** / IRAKASLEA

2002-03-08



*"Saharako osasunean garbitasun neurri sinpleek eragin handiagoa dute"*

**J. M. ARGINZONIZ** / PEDIATRA

2002-03-22

## HILEKO ESALDIA

**"Euskarak asko harritu nau. Hemengo jendeak badaki euskarak zenbat balio duen"**

**LIAM D´SILVA** / INGELES IRAKASLEA

2002-03-27

## HILEKO DATUA

**27**

**MILIOI EURO ZITUEN UDAL AURREKONTU OROKORRAK**

Hogeita zazpi milioi euro pasatxo zituen Arrasateko udal aurrekontu orokorrak aurtengo ekitaldietarako. /2002-03-22



### Arrasateko biztanleriaren kopuru handi bat erretiratua da

Ezagun da garatuak deritzegun herrialdeetako biztanleria zahartuz doala. Geroago eta ume gutxiago jaiotzen dira, eta bizi maila handituz doa. Arrasatek 23.400 biztanle ditu, gutxi gorabehera, eta horietatik, lau milak baino gehiagok hirurogeita bost urte pasatxo dituzte. Horiei, aurrez lana utzi dutenak gehitu beharko zaizkie. Hortaz, jende mordoa. /2002-03-01

EUSKARAREN ALDE DIRU DEZENTE BATU ZUTEN

Azkeneko pezetak eta lehen euroak jasotzeko euskararen alde ipinitako kutxetan diru dezente batu zuten. /2002-03-15

PILAK BOTATZEKO ONTZI FALTAN HERRIAN

Pila zaharrak oso kutsakorrak direla jakin arren, horiek botatzeko ontziak apurtuta aurkitu genituen. /2002-03-15

## AIPAGARRI



**AITOR OLEA**
**Organo jotzailea**

Arrasatear horrek urte asko daramatza Lekeitioko parrokian asteburuetan organoa jotzen. Gainera, organoarekin grabatutako diskoa egin zuen. /2002-03-08



**PACO MORALES**
**ESK sindikatukoa**

Beste 250 lagunekin Bartzelonan izan zen, globalizazioaren kontrako ekitaldietan. Poliziak bereziki euskaldunak zaindu zituela aipatu zuen. /2002-03-27



**MIKEL ETXEBESTE**
**Abeltzaina**

Arrasatetik Lezaunera joan zen gazte hori, abeltzain izateko asmoz. Abeltzaintzara eta nekazaritzara bideratutako modulu bat egin zuen. /2002-03-01

CREATIVO
ARQUERO
CONSTRULAN S.L.
ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK
Basabe Industrialdea 4 - EO -11 Aretxabaleta
943-790151 608-772867 679-455764

Urte Berriaren Sarreran
CONSTRULAN S.L. ARQUERO-KO LANGILE GUZTIEK OPA DIZKIZUETE
JAI ZORIONTSUAK
ETA 2003 URTE BERRI ON!



Samsonite
HiRE
LIBURU ETA PAPERDENDA
BIDAIARAKO ETA NARRUZKO ARTIKULOAK
Iturriotz, 4 • Tel./Faxa: 943 79 14 84

Produktu dietetikoak, sendabelarrak,
kirol dietetika, elikadura naturala,
kosmetika naturala,
dieta pertsonalizatuak

Aitor Belardenda

Urte berri on eta
osasuntsua opa dizugu

Olarte 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 90 43

## ALBISTEIZANZEN

DEBAGOIENEAN

### Arantzazu berritzeko plana aurkeztu zen

Seminarioaren atal bat eta frontoia botatzea aurreikusten zen, eta baita eraikin berri bat egitea ere. 5.500 milioi euroko aurrekontua zuen planak.
2002-03-18

EUSKAL HERRIAN

### ETAk PSEko Orioko zinegotzia hil zuen

Juan Priede, Orioko PSEko zinegotzia hil zuen ETAk. Egun batzuk lehenago, Bilboko Burtsari erasotzeko asmoz lehergailua ipini zuen.
2002-03-21

MUNDUAN

### Lurrikara batek 5.000 hildako Afganistanen

Richter eskalan 6,3ko intentsitatea izan zen lurrikara batek Afganistango iparraldea guztiz birrindu eta ia 5.000 hildako utzi zituen.
2002-03-26

## KULTURA



### Txatxiartistak, 'Eguzkiaren bila'

Txatxilipurdiko Txatxiartistak *Eguzkiaren bila* antzezlana aurkezten ibili ziren urteko hirugarren hilean. Gazteluondoko aretoan egin zuten lehenengoz antzerkia, eta martxoan, Bilboko Kafe Antzokian izan ziren. Antzezlanean dantza, musika, antzerkia eta koreografia batu zituzten, bizitasun handiagoa emateko asmoarekin. Bai Gazteluondoko aretoan baita Bilbon eskaini zuten emanaldian ere arrakasta izan zuten gaztetxo horiek. Hainbat neska-mutilek hartu zuten parte. Itziar Rosadok eta Mikel Irastortzak egin zituzten zuzendari lanak. Txatxiartisten Antzerki Sailak hainbat urte ditu, eta beste horrenbeste jarraitzeko asmotan dabiltza. /2002-03-27

PILOTA

### Herriko pilotariek, ezin aurrera jarraitu Debarro Txapelketan

Debarroko Txapelketako pilota partiduak jokatu ziren, Uarkape pilotalekuan. Kadete, gazte eta senior mailako pilotariek ezin izan zieten Bergarako pilotariei irabazi; azken haiek sasoi hobean zeudela erakutsi zuten. Horrela, bada, ezin izan ziren bigarren fasera pasatu. /2002-03-01

HEZKUNTZA

### Arrasate-Aretxabaleta Institutuak, 25 urte

Aurreko ikasturtean Arrasate-Aretxabaleta Institutuak 25 urte bete zituen. Ibilbide luzea. Institutuaren sorreran 227 ikasle eta 12 irakasle izan ziren, guztiak ere Vicente Guinearen zuzendaritzapean. Gaur egunera arte, Institutuaren eraikinak eta tokiak aldatuz joan dira. /2002-03-08

MUSAKOLAKO KIROLDEGIKO MEDIKUNTZA ZERBITZU BERRIA /2002-03-08



ALBERTO GARAI
KIROL-MEDIKUA

### Zer eskainiko du Kirol Medikuntza Zerbitzu horrek?

**Prebentzio zerbitzua da. Osasun azterketen bitartez gaixotasunen bat dagoen ikertu, eta, gaixotasunik egongo balitz, kirolaren bitartez aurre egin diezaiokegun aztertzen dugu.**

KULTURA

### Ekon musika taldeak hirugarren diskoa kaleratu zuen

Ekon talde arrasatearrak *Salatzen dut* izeneko hirugarren diskoa kaleratu zuen Iruñeko Gor diskoetxearekin. Disko zuzenagoa dela esan zuten taldeko partaideek, bai musika eta bai hitzei dagokienez. Apiril hasieran Elgoibarren izan zen kontzertuan aurkeztu zuten. /2002-03-15

ANTIGLOBALIZAZIOA

### Globalizazioaren aurkako ekitaldietara joateko ekimena

Europako Batasunaren gailurra egin zuten, martxoan, Bartzelonan. Betiko moduan, globalizazioaren kontra hainbat ekimen izan ziren. Ekimen haietan parte hartzeko autobusak antolatu zituen ESK sindikatuak. Manifestazio nagusia amaitu ondoren itzuli ziren herrira. /2002-03-15

ATLETISMOA

### Maria Jose Gil atletak, urrea, Espainiako Txapelketan

Anoetan jokatu zen Espainiako Txapelketan urrea irabazi zuen Maria Jose Gil arrasatearrak, 1.500 metroetan. Lasterketan 60 urtetik gorako atletek hartu zuten esku, eta arrasatearra izan zen azkarrena. Gainera, Espainiako errekorra ezarri zuen Maria Jose Gilek. /2002-03-08







Garajeko ateak
Burdinazko pertsianak
Automatismoak
Konponketak
Urrutiko aginte tresna homologatuak
Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
JUBAR®
ATEAK, S.L.
Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 Posta-kutxa • ARRASATE • jubarateak@euskalnet.net

# Etxeko konponketak

## Aroztegia

**Armairuak, hormako armairuak, ateak, oholtzak, leihoak etab.**

AROZTEGIA LAGUN

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83
Markoalde,5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

## Igeltsaritza

Izcue Irurzun

Igeltsaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Leihoak

ARGI PLASTIK

*PVC, aluminio termiko eta poliuretanozko leihoen lantegia.*

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

## Elektrizitatea

**ARANZABAL KOOP. E.**

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Iturgintza

**Aretxabaleta**

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53

ION LEIHOAK

*PVC • Aluminioa RPT*
*Poliuretanoa • Bitarikoak*

**Ateak • Zoluak**

Kanpantorpea,2-behea • **ARRASATE**
Tel./Faxa: 943 79 11 35

ARRASATE Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
**24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77**

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

AURI

Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak**
**Gasa • Berogailuak**

## Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak • Pantografo bidezko grabaketa

**Eroski merkataritza zentroa, 1**
**Tel./Fax: 943 79 76 03**

## Margoak

**APAIN**

**MARGO ETA APAINKETA**

**Matiena, 3-1**
**Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17**

EGIA iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

**Txorrota**

Enpresa baimendua: berogailu eta gas instalatzea
Galdarak aldatzea
Erretenen mantentze-lanak
Obra integralak
Zaharberritzeak

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

JOVI

**10.000 KOLORETAKO MENUA**

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

**Gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu 943 71 23 91 telefonora**

## Eraikuntzak

**Berecibar**

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

# APIRILA



## Zubi berriarekin urbanizazio berriak lotu

Cerrajerako etxe berriak eta Udal Parkinga lotzen dituen zubia jartzen hasi ziren. Lan horiek ikusmin handia sortu zuten herritarren artean. Zubia 18,40 metro luze da, eta Finlandiako pinu gorriarekin eginda dago. Zubiaren zorua egiteko, berriz, teka motako egurra erabili zuten. Zubiaren lanak Cerrajerako etxeen urbanizazio lanen barruan zeuden. /2002-04-26

### HILEKO ESALDIA

**"Nik euskaraz egin ahal izateko, ez dakixenak gutxienez ulermen mailara ikasi daixela"**

**ANDER ELORTONDO** / EUSKALTZALEA

2002-04-12

### HILEKO DATUA

**181**

**LAGUNEK EMAN ZUTEN IZENA GURASO ESKOLAN**

Guraso eta seme-alaben arteko gomendioak jaso gura zituzten 181 guraso egon ziren ekainera arteko eskoletan. /2002-04-19

### AIPAGARRI



**LARRAITZ TROJAOLA**
**Zinegotzia**

Mondragoetarra Saharan izan zen, Emakumeen IV. Kongresuan. Emakundek gonbidatuta, ibarreko beste hamabost lagunekin batera. Hemengo kulturarekiko errespetu handia dutela kontatu zuen. /2002-04-12



**ADOLFO PARRA**
**Etorkina**

Kolonbiar gazte horrek sei hilabete egin zituen Arrasaten. Jaioterriko indarkeriatik ihesi etorri zen, lan bila. Jende nagusiak oso ondo hartu duela aipatu zuen, eta ondo integratuta sentitzen zela. /2002-04-26



**JOXE ARRIARAN**
**Pilotari ohia**

Jose Mari Palacios *Ogeta* pilotari ohia apirilaren 21ean hil zen. *Ogeta*-ren lagun mina zen Joxe. Sarri ibili ziren biak pilotan. Pertsona elegantea zela dio Joxek, bai pilotalekuan baita kalean ere. /2002-04-26



## ALBISTEIZANZEN

► EUSKAL HERRIAN

### BBVaren isilpeko kontuak, agerian

BBV banketxeak paradisu fiskaletan 225 milioi eurotik gorako inbertsioak zituela aurkitu zen. Bilboko Gotzainak hiru milioi zituen kontu horietako baten inbertituta, Jersey-ko "paradisuan".

2002-04-03

► MUNDUAN

### Chávezen aurkako kolpea Venezuelan

Hugo Chávez presidentearen aurkako estatu-kolpea egin zuen Venezuelako armadak. Hurrengo egunean, Chávezek boterea berreskuratu zuen, baina herria krisi politiko larrian geratu zen.

2002-04-12

## KULTURA



### Gaztetxeak, hamaika urte

Arrasateko gaztetxeak hamaika urte bete zituen, eta AGAKOkoek hainbat ekitaldi prestatu zituzten apirilerako. Eraikin hartan ospatu zuten azken urteurrena izan zen. Lehenengo ekitaldia gaztetxean egin zuten bertso bazkaria izan zen. 85 lagunek pasta-entsalada eta oilasko goxoa jan zuten. Sustrai Colinak, Amets Arzallusek, Iñaki Apalategik eta Unai Iturriagak bertsoen bidez barre handiak eragin zituzten batutakoen artean. /2002-04-12

ORAIN ETA HEMEN

### Gelmako langileak, kezkatuta, lantegia lekuz aldatzeagatik

Arrasateko Egitamu Orokorraren arabera etxebizitzak eraikitzeko asmoa du Udalak Gelma lantegia dagoen lekuan. Hori dela eta, Gelmako langileak kezkatuta azaldu ziren erabaki horrekin. Lurraren desjabetzea agertzen zen urbanizazio planean, eta horrek ematen zien beldurra enpresako langileei. Hau da, desjabetzearen bidea segituz gero, lanpostu guztiak desagertu egingo dira, eta 300 langile kalean geratuko dira. Gelmako zuzendaritzak, Egitamu Orokorra zela eta, Arrasateko Udalari alegazioa egin zion, eta argitzeke zeuden kezka guztiak. /2002-04-12

BIOLOGIAKO PROIEKTUA NORVEGIAN EGITEN ARI DA /2002-04-26



IÑAKI ETXEBESTE
BIOLOGIA IKASLEA

### "Animaliak atsegin dituenak izugarri gozatuko du han"

**Biologia ikasten ari zela, azken urtea Norvegian igarotzeko aukera suertatu zitzaion, Erasmus bekari esker. Gero, proiektu erakargarri bat eskaini zioten. Oraindik han dago.**

KULTURA

### XV. Arrasate Lehiaketako sariak banatu zituzten

AEDk antolatzen duen XV. Arrasate Lehiaketako irabazleek sariak jaso zituzten Monterron kultura etxean egindako ekitaldian. Ipuinak, poesiak, bertsopaperak eta komiki onenak saritu zituzten. Ipuinei dagokienez, 17 urte baino nagusiagoen artean bigarren saria hutsik geratu zen, eta lehenengo saria Maider Osak jaso zuen. Bertso-paperei dagokienez, 15 eta 16 urte artekoen artean lehenengo saria Idurre Osari egokitu zitzaion. Azkenik, komikien sailean, eta 17 urte baino nagusiagoei zegokienez, bigarren saria Gaspar Ferreirak eskuratu zuen. /2002-04-26

ORAIN ETA HEMEN

### Sukaldean erabilitako olioa hasi ziren batzen hil amaieran

Apirilaren 26an hasi ziren sukaldean erabilitako olioa batzen. Helburua da erabilitako olioa harraskatik bota beharrean, birziklatu eta biodiesela egiteko erabiltzea. Ecogras enpresakoek batzen dute olioa, hilean behin, Laubide plazan eta Maxi Eroskiko aparkalekuan. /2002-04-19




ibai-arte
Urte berrian, Meltxor, Gaspar ala Baltasar.
Nork emango dizu 3.000 €ko saria?
Aldedi ■ Alonso Anaiak ■ Altuna ■ Anboto ■ Aranzabal ■ Arrasate Zoo ■ Arregi ■ Artea ■
Ausart ■ Bea ■ Beatriz ■ Bed's ■ Beinke ■ Belem ■ Ceciaga ■ Egizabal ■ Ehune ■ Elkoro
Expert ■ Eya ■ Eya ■ Elorza ■ Eroski Bidaiak ■ Erosle ■ Etxe Lan ■ Etxe Mobiliario ■ Euskadiko
Kutxa ■ Feli ■ Flash ■ Foto Imagen ■ Galeria 44 ■ Garagorri ■ Gili-Gili ■ Haurtxoa ■ Hemen ■
Hire ■ Ikatz ■ Itzala ■ Izozkitegi ■ J. Uriarte- Tamayo ■ J.G. ■ Juanma ■ Kajoi ■ Kilikolo ■ Klas
■ Kutxa ■ La Caixa ■ Laket ■ Landaluze ■ Lasagabaster ■ Lilura ■ Lorategi ■ Lore ■ Los
Vaqueros ■ Luko ■ Mabel ■ Marga ■ Markiegi ■ Maza ■ Milar Elkoro ■ Monte ■
Muruamendiaraz ■ Nerea ■ Oihana ■ Okendo Kirolak / Onandia ■ Otamendi ■ Parlance ■
Phildar ■ Portaloiko Kioskoa ■ Sikol ■ Tokion ■ Tomas ■ Totem ■ Troko ■ Txuntxurunberde ■
Udalaitz ■ Ume ■ Uriarte Sport ■ Urrats ■ Zabaleta ■ Zarraoa ■ ZR ■ Zubia ■ Zubiaga ■ Zur-Lur
3.000 €-ko zozketa Erregeen Kabalgatan egingo da urtarrilaren 5ean Abaroa egoitzan

Gabon zo
eta urte

EZKIÑA
taberna
Olarte, 25 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 79 20 20

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Itzala
Iturriotz kalea, 19
943 77 30 29

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TLF. 943 711768

OKORETEGI
KAFETEGIA
Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.:943 77 03 62


iontsuak
erri on!
CAFÉ
AMAI
KONTZEZINO KALEA 14
943 71 29 95 – 20500 ARRASATE
KIMETZ
Kazuelatxoak, ogitartekoak eta pintxoak
Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE
Giro desberdin bat!!
Jai Zale Taberna
Olarte 37, Behea
20500 Arrasate
Tel.: 943 796 792
RUMBA TABERNA
Iturriotz kalea
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00
LORA
Ondo pasau Santamasak!!!
BIONA TABERNA
Monte taberna
Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

# MAIATZA



*"Geroago eta neska gehiago animatzen gara triatloia egitera"*

**LEIRE URRETXO** / TRIATLOILARIA

2002-05-10



*"1957ko Gipuzkoako Txapelketan, ihes egin, eta irabazi egin nuen"*

**P. M. LÓPEZ** / TXIRRINDULARI OHIA

2002-05-17

## HILEKO ESALDIA

**"Hastapen ideologikoak aldatuko lituzkeen ezker abertzalea sortu gura dute"**

**ANTXON MENDIZABAL** / IRAKASLEA

2002-05-10

## HILEKO DATUA

# 1.850

**ETXE BEHARKO LIRATEKE PREMIAK ASETZEKO**

Herritarren premiak asetzeko 1.850 etxebizitza eraiki beharko lirateke. Hamar herritarretik bik behar ei dute etxea. /2002-05-03




### Elkartasun Eguna Mondragoen

Azken urteotan moduan, herri behartsuenei elkartasuna erakusteko asmoarekin Elkartasun Eguna izan zen, hilaren 25ean, Arrasaten. Goizeko hamarretatik arratsaldeko zortziak arte, hainbat ekintza egin zituzten: besteak beste, erakusketak, saltokiak, umeendako jolasak eta kale antzerkia. Ekintza horiek guztiak Seber Altube plazan egin zituzten. /2002-05-31

**'NITROS' TXAKURRA, ABOS-EN TXAPELDUN**

Txakur Heziketako Txapelketa jokatu zen Frantzian. Jon Iñaki Lasa eta *Nitro* txakurra izan ziren onenak. /2002-05-31

**EZ ZEN GAU BATXILERGORIK OSATU**

Bigarren urtez, Arrasaten gau batxilergoa ezartzeko ahalegina bertan behera geratu zen. /2002-05-03

## AIPAGARRI



**PATXI EGIDAZU**
**Erretiratua**

Udalako Dolara baserriko Patxik 100 urte bete zituen hilaren 25ean. Patxi Egidazu behin bakarrik joan da medikuarengana, sasoi onekoa da-eta. /2002-05-03



**TXEMA VALLE**
**Enologoa**

Txema Valle enologo arrasatearrak Ardo Dastatzearen gaineko ikastaroa eman zuen maiatzean. Guardian egin zituen ikasketak Txema Vallek. /2002-05-10



**JESUS MORENO**
**Kirolari ohia**

Futbol jokalari eta entrenatzaile ohia da Jesus Moreno. Entrenatzaile gogorra zela esan zigun, gogorregia, akaso. Aurten, AUKEA saria eman diote. /2002-05-24




Pertsonengandik gertu dagoen multinazional bat.
www.fagor.com
Gero eta gehiago dira mundu osoan egunero Fagorrekin esnatzen direnak. Multinazional gisa etxetresna elektrikoen arloan daukagun nagusitasuna, 4.600 lagileko lantalde batek bermatzen du. Era berean gure etxetresna elektrikoak mundu osoan aurki daitezke, 3 kontinentetan lantegiak, eta atzerriko salmentetan gorakada ikusgarri bat.
GARANTIA 5 URTEKO
5 urtetan pieza eta osagai guztiak doan.
FAGOR
Besteak baino gehiago

# EKAINA



*"Hiperaktibotasun gaitza betiko da, eta horrekin bizi izaten ikasi behar da "*

**MIKEL OLANO** / PSIKOLOGO KLINIKOA

2002-06-14



*"Tren bat margotu edo New Yorkeko metroan gustura egingo nuke grafiti bat "*

**"ESAN"** / GRAFITIGILEA

2002-06-21

## HILEKOESALDIA

**"Ez Lagun Arok ezta kooperatibek ere ez dute lan gaixotasunen gaineko definizio zehatzik"**

**MIKEL OLABE** / SINDIKALISTA

2002-06-28

## HILEKODATUA

**28**

**HERRITARREN %28K EGITEN DUTE EUSKARAZ**

SEI soziolinguistika elkarteak kaleratutako datuen arabera, arrasatearren %28k egiten dute euskaraz kalean. /2002-06-14



### Industria Erakusketa iraunkorra zabaldu zuten

Saiolango eraikinean, 850 bat m²-tan, Industria Erakusketa inauguratu zuten. Lau gunetan, XIII. mendeaz geroztik gaur egungo industria modernora iritsi artekoaren erakusketa. Antzinako makinak, argazkiak... daude ikusgai. Fagorren sortzaileetako hiru kide daude argazkian: Jesus Larrañaga, Alfonso Gorroñogoitia eta Jose Maria Ormaetxea. /2002-06-28

**70EKO HAMARKADAKO JAIA, GAZTETXEAN**

70eko hamarkadako jaialdian jende asko mozorrotu zen, kontzertuak izan ziren, eta ordutegia bete zuten . /2002-06-14

**SAN JUANETAN, DIRU-ZORRO LAPURRETAK**

San Juan bezperako gauean, adibidez, ordubete eskasean, 20 diru-zorro lapurtu zituzten Ostantz tabernan. /2002-06-28

## AIPAGARRI



**J.M. BARRENA**
**Mendizalea**

Jendeak *Ketxuma* ezizenez ezagutzen du Jesus Mari. Ekainean, Pakistanera joan zen, Nanga Parbat mendia igotzera, bere lehenengo zortzi milakoa. /2002-06-07



**EUGENIO URIBARREN**
**Izozkigilea**

Idiazabal gazta, patxaran, txakolin eta babarrun zaporeko izozkiak asmatuta, dilista zaporeko izozkia asmatu zuen Eugeniok, anaiarekin batera. /2002-06-14



**MAITE MENDIZABAL**
**Idazlea**

Maitek, Ane Arregik bezala, Urruzuno Ipuin Lehiaketan saria irabazi zuen. Biei, irailean Europan barrena egin zuten bidaia egokitu zitzaien. /2002-06-28




Din dan don,
din-dan don!
Eguberri on!
Zorion, zorion,
Gabonak Gabon!
JMA


edertasun gida
JADE
ILE APAINDEGIA
Maalako Errabala 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31
Jose Antonio
GIZONEZKOEN ILE APAINDEGIA
Otalora lizentziatua 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10
Lore
Olarte 10 • ARRASATE • ☎ 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa
KORA O NEAL
Ayer
HR
CLARINS PARIS
BIOTHERM
VALMONT
AUS ART
Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo
Iturriotz kalea 24.
Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

# UZTAILA



*"Helburua da snow-arekin egiten ditugun trukuak dirtsurf-arekin egitea"*

**ZIGOR VEGA** / 'DIRTSURF'-LARIA

2002-07-19



*"Hemezortzi sendabelar daude edozeinek etxerako hartu behar lituzkeenak"*

**ESTEBAN LASKURAIN** / NATURAZALEA

2002-07-12

## HILEKO ESALDIA

**"Ni ez naiz kastua, ez naiz inoiz garbia izan, baina Franco zela tarteko, are gutxiago"**

**LEOPOLDO MARIA PANERO** / POETA

2002-07-19

## HILEKO DATUA

# 97

**NESKA-MUTIKO JOAN ZIREN, BURGOSERA, UDALEKUETAN**

Arrasate Kirol Proiektuak antolatuta, 97 neska-mutiko Burgosera joan ziren, hamar egun igarotzeko asmoarekin. /2002-07-05



### Ospitale zaharreko gaztetxea betiko itxi zuten

Ospitale zaharreko gaztetxeak ateak betiko itxi zituen, gazteek euren gauzak gaztetxetik atera ondoren. Gurea zinemako gaztetxea itxi zutenean, ez zirudien herrian horrelako beste ekimenik sortuko zenik, baina 1991. urteko Aste Santuan, gazte batzuk ospitale zaharrera sartu ziren. 11 urtetik gora egin ditu gaztetxeak, eta ehunka ekintza eta ekitaldi egin dituzte han. /2002-07-12

**'ARRASATEKO EMAKUMEAK XX. MENDEAN'**

↑ Bost ataleko liburua aurkeztu zuten, uztailean; bertan, kronologikoki historian emakumearen rolak. /2002-07-19

**BERRIRO ERE LAPURRETAK**

↓ Bi astean, erdialdeko zortzi denda *bisitatu* zituzten lapurrek: atzeko kristalak hautsi, eta dirua eraman. / 2002-07-12

## AIPAGARRI



**AMAIA ARRIZABALAGA**
**Internazionalista**

Komite Internazionalistetako kide da Amaia, eta bederatzi egun egin zituen Palestinan, Gazan, egoera ikusi eta brigada bat antolatzeko asmoz. /2002-07-12



**SAIOA IBÁÑEZ**
**Dantzaria**

Saioak zazpi urte igaro zituen Bartzelonan eta Amsterdamen dantza ikasten. Uztailean, Gaur Egungo Dantzako ikastaroko irakasle izan zen. /2002-07-12



**J. M. ASTIGARRAGA**
**Parrokoa**

18 urtez Arrasateko parroko izandakoa aldatu egingo zutela iragarri zuten uztailean. Jose Mari Azkoitira joan, eta Azkoitikoa Arrasatera etorri. /2002-07-12




# ABUZTUA



*"Aldaketa ona izango da, abade berriak ideia berriak ekarriko ditu".*

**J. M. ASTIGARRAGA** / PARROKO OHIA

2002-07-24



*"Gasteizek eta Florentziak antzekotasun handia dute. Ez da trenik hartu behar "*

**MARKEL URRUTIA**/ BIDAIAZALEA

2002-08-04

## HILEKO ESALDIA

**"Selekzioek erakutsitako maila oso ona izan da, eta txapelketa ere, oso lehiatsua izan da"**

**P. MARTA** / WUSHU-KO FEDERAZIOKOA

2002-08-01

## HILEKO DATUA

**138**

**UME JAIO ZIREN EKAIN ETA ABUZTU BITARTEAN**

Aurreko urteetako datuekin alderatuz nabarmen egin dute gora erditzeek. Ekainetik abuztura, 138 ume jaio ziren. /2002-09-06



### Abuztuan, hainbat lan egin zituzten Arrasaten

Kolektore lanak zirela-eta, abuztuan, Arrasate pasealekuan egin zituzten hodi berriak jartzeko lanak. Abuztuaren 5ean hasi zituzten lanak Arrasate pasealekuan, eta hilaren 24an amaitu zituzten. Inguru hartako lanak ezin ziren luzatu: izan ere, lantegiek ateak zabaltzerakoan Loramendi kaletik eginiko desbideraketa ez zen nahikoa izango. /2002-09-06

ZABALETAKO ZUBI INGURUAN, ZEBRABIDEA

↑ Musakolako Zabaleta zubi inguruan, azkenik, zebrabidea margotu zuten, abuztuan pertsona bat hil ostean. /2002-09-06

MUSAKOLAKO KANPO IGERILEKUA, BAKARTI

↓ Azken 25 urteotako udarik txarrena bizi izan zuen Musakolako kiroldegiko kanpoko igerilekuak. /2002-09-06

## AIPAGARRI



**BEÑAT ARTZADUN**
**Harreman-eko kidea**

Zortzi hilabete bete zituen, Mozambike aldean, garapenerako proiektu bat aurrera ateratzeko asmoz, garapen sozio-ekonomikoaren alde. /2002-09-06



**AITA LUKAS**
**Frantziskotarra**

Abuztuaren azken egunean hil zen Aita Lukas. Esate baterako, Kubako Iraultzan izan zen Aita Lukas, eta askatasunaren alde borrokatu zuen hantxe. /2002-09-13



**ARITZ ARREGI**
**Bidaiazalea**

Aritz Korsikan egon zen, Iker Galdosekin batera. Bizikletan ibili ziren hango parajeak ikusten. Uhartean arazo politikoa sumatzen dela esan zigun./2002-09-13

AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

ARPE
Ile apaindegirako artikuluak
Kontzeziño 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
• Diagnosia-Orientazioa.
• Laguntza terapia.
• Mota guztietako eskola arazoak.
• Peritaje judizialak.
• Psikomotrizitatea eta logopedia.
• Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
• Ikasketa teknika eta ohiturak.
Ignazio Zuloaga kalea 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

# IRAILA



*"Gure nahia da Arrasateko Udala inoiz baino hobeto lanean jarrai dezala"*

**X. ZUBIZARRETA** / ALKATEA

2002-09-06



*"Ortuei etorkizun laburra ikusten diet; lurrotan etxeak egingo dituzte"*

**SERAFIN ATXA** / ERRETIRATUA

2002-09-13

## HILEKO ESALDIA

**"Sexismue leku eta egoera danetan dago, eta eziñezkue da kontroletie. Ze egin orduen?"**

**AMAIA MARTIARTU** / DISEINATZAILEA

2002-09-27

## HILEKO DATUA

# 24

**UDALTZAIN DABILTZA HERRIKO KALEETAN LANEAN**

24 udaltzain hasi ziren lanean herriko kaleetan. Hogeita lau orduko zerbitzua eskaintzen dute, zazpi egunez. /2002-09-20




## Batasunaren egoitza zaintzen, noiz itxiko zain

Garzón epaileak abian ipinitako autoak eragina izan zuen Arrasaten ere. Arrasateko Batasunaren egoitza ez zuten itxi, baina Arrano elkartean zainketa lanak antolatu zituzten, gau eta egun. Manifestazioak ere izan ziren herrian, baita kale erasoak ere. Besteak beste, PSE-EEren egoitzari margo gorri eta horia bota zioten. /2002-09-06

**INDUSKETA ABERATSAK LEZE TXIKIN**

↑ Behe Paleolitikoa hobeto ezagutzeko aurkikuntza egin zuten, aztarnategia jatorrizko lekuan zegoen-eta. /2002-09-13

**ARRASATE ERRUGBI TALDEAK, JIPOI EDERRA**

↓ Aurredenboraldian, Hernaniren aurkako lagun arteko partiduan Mondragoeko taldeak 91-0 galdu zuen. /2002-09-20

## AIPAGARRI



**NAGORE ZUBIZARRETA**
**AEDko idazkaria**

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak idazkari-teknikaria estreinatu zuen. Aretxabaletakoa da hura, eta Ander Elortondok utzitako tokia beteko du. /2002-09-06



**J. L. LIZARRALDE**
**Abaroako presidentea**

Juan Luis 65 urteko arrasatearra da, eta Rosalio Zubizarretak utzitako postua beteko du. Haren esanetan, edadetuen inguruan lan handia dago egiteko. /2002-09-13



**JOSU ZUBIA**
**Entrenatzailea**

Josu aretxabaletarra da, eta Mondra futbol taldeko entrenatzaile berria. Buruan gauza bakarra zuela adierazi zigun: preferente mailara igotzea. /2002-09-13

KONTRATAK
IRUROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Señalizazioak
Lonak
Erliebedun hizkiak

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

ALDEDI
Burdindenda
Biteri 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

# URRIA



*"Oso harrera ona egin didate, eta oso jende jatorra topatu dut"*

**J. MOLINA** / S. ANDRESKO PARROKOA

2002-10-18



*"Kontzientzia kritikoa pizten ari da AEBetan, 'hip-hop'-ari esker"*

**ASIER LEATXE** / MUSIKARIA

2002-10-25

## HILEKO ESALDIA

**"Palestinarrak prest daude hirugarren Intifada hasteko. Ez dute euren lurra utzi gura"**

**A.ARRIZABALAGA** / INTERNAZIONALISTA

2002-10-11

## HILEKO DATUA

**%4**

**DATORREN URTEAN, UDAL ZERGAK %4 IGOKO DIRA**

2003an, %4 igoko dira udal zergak. Proposamena ASA, EA eta EB alderdien botoekin onartu zuten. /2002-10-25



**Espainiako gerran hildako bi milizianoren gorpuzkiak Kurtzetxikin**

Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Arrasateko Udalak ezagutzera eman zituzten Kurtzetxiki inguruan aurkitutako gorpuzkiak. 1936.urtean, frankistek Bedoñako inguruetan miliziano bi metrailatu egin zituzten, eta auzotarrak gorpuzkiak lurperatzera behartu zituzten. Orduko lekuko batek gertatutakoa ezagutzera eman zuen, eta handik abiatuta aurkitu zituzten gorpuzkiak. /2002-10-11

**HARROBIETAN, EMAITZA ONAK**

Ingurumena zaintzeko planean Kobate eta Kanpanzar harrobietan emaitza egokia lortu zen. /2002-10-11

**OINEZKOEN ZUMARDIKO LANAK, AMAITU BARIK**

Udalak isuna ipini zion Galdiano Eraikuntzak izeneko enpresari, lan-epeak ez betetzearren. /2002-10-04

## AIPAGARRI



**MAIDER ARRIARAN**
**Diseinatzailea**

Diseinatzaile izateko ikasten ari da Maider. Urriaren 17an, Gasteizeko Villa Suso jauregian arropen lehenengo desfilea egin zuen Maiderrek. /2002-10-25



**IRATI PAGOAGA**
**AEDko gazte eragilea**

Irati Pagoaga Aretxabaletan bizi da. Euskal Filologiako ikasketak amaitzen ari da. Aurten, Arrasaten izango dugu, AEDko gazte eragile lanetan. /2002-10-25



**JOSU OTADUI**
**Erretiratua**

Kooperatibista Euskaldunen Topaketan, Amaian, Josu Otadui omendu zuten. Fagorren sorreran lan etengabea egin zuen euskararen alde. /2002-10-25




HOSTAL MUSAKOLA

Gipuzkoa Etorbidea z/g
Tel.: 943 79 20 50
ARRASATE

*Zorionak eta urte berri on!!*



2003 zoriontsuak opa dizugu!

ONANDIA

Goxotegia, dastalekua, izozkitegia

Iturriotz, 11 Tlf: 943 79 12 31
20500 ARRASATE


e-debagoiena
ETORKIZUNA HURBILTZEKO
TE ACERCAMOS EL FUTURO
2003an, e-debagoiena
zabalduz, bultzatuz... zure haritik
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Euskaltel
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA


euskal selekzioaren
cd-rom jokoa
PC
euskal herria mundiala
Euskal Selekzioaren bideojokoa
eskatu
orain!
902 010 735
Telefonoa 24 orduz.
+ DOAN
euskal herria mundiala
euskal
selekzioaren bufanda
Izakinak bukatu arte.
Imajina dezakezun guztia!
Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!
Aukera ezazu taktikarik egokiena
Jokatu:
Munduko Txapelketa,
Lagun arteko partiduak,
sarean,...
Zure etxean,
72 orduan
bidaltze
gasturik gabe
Grafikorik onenak 3D-n
Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...
Giro-soinu aparta,
Ikurrinak harmailetan...
Jokoaren estatistikak
Jokaldi onenen errepikapenak...
Lau futbol zelai aukeran.
Partiduak egunez, gauez, euriarekin...
35,95
euro
Jokoa orain erosiz gero,
bufanda eta garraioa
DOAN

# ALEZ ALE

*2002an, ARRASATE PRESSek 44 zenbaki atera ditu. Horietan landutakoak hilabetez hilabete gainbegiratu ditugu, baina aldizkariko azalek ere badute zer esan. Azaletan gai garrantzitsuenak nabarmentzen ditugu.*




**568.** ZENBAKIA
Unai Sarabia: Arrasateko azkarrena. /2002-01-11

**569.** ZENBAKIA
Zirkulazioa Arrasaten. /2002-01-18

**570.** ZENBAKIA
Al-Andalus: Andaluziako zatitxo bat. /2002-01-25

**571.** ZENBAKIA
Argentina, testigu baten ikuspuntutik. /2002-02-01




**572.** ZENBAKIA
San Valentin, maiteminduen eguna. /2002-02-08

**573.** ZENBAKIA
Zaldibarko txapelketa. Herriko futbola. /2002-02-15

**574.** ZENBAKIA
San Josepeko harrobia itxiko dute. /2002-02-22

**575.** ZENBAKIA
Animalien aztarnen erakusketa. /2002-03-01

**576.** ZENBAKIA
Institutuaren 25. urteurrena. /2002-03-08

**577.** ZENBAKIA
Arrasateko Industria Museoa. /2002-03-15

**578.** ZENBAKIA
2002ko Udal aurrekontuak. /2002-03-22

**579.** ZENBAKIA
Txatxiartisten obra berria. /2002-03-27




**580.** ZENBAKIA
Haur literaturaren aretoa. /2002-04-12

**581.** ZENBAKIA
'Tunning'-a Arrasaten. /2002-04-19

**582.** ZENBAKIA
Arrasate Lehiaketak. /2002-04-26

**583.** ZENBAKIA
Laubideko lur azpiko aparkalekua. /2002-05-03

**584.** ZENBAKIA
Kasino elkarteak egoitza aldatuko du. /2002-05-10

**585.** ZENBAKIA
Besaide elkarteak Mendi Astea antolatu du. /2002-05-17

**586.** ZENBAKIA
IV. Elkartasun Eguneko azoka. /2002-05-24

**587.** ZENBAKIA
Errugbikoen Garagardo Festa. /2002-05-31




**588.** ZENBAKIA
70eko hamarkadako rockaren jaia. /2002-06-07

**589.** ZENBAKIA
Sendabelarren erakusketa. /2002-06-14

**590.** ZENBAKIA
San Juanak 2002 heldu dira. /2002-06-21

**591.** ZENBAKIA
Industria erakusketa jarri dute. /2002-06-28

**592.** ZENBAKIA
Gaztetxe berriaren proiektua. /2002-07-05

**593.** ZENBAKIA
'Flysurf'-a, haizearen laguna. /2002-07-12

**594.** ZENBAKIA
'Arrasateko emakumeak XX. mendean'. /2002-07-19

**595.** ZENBAKIA
Nazioarteko folklore dantzak. /2002-07-24




**596.** ZENBAKIA
Abuztuan ere zenbait lan egin dituzte. /2002-09-06

**597.** ZENBAKIA
Mugarriz Mugarri, AEDren eskutik. /2002-09-13

**598.** ZENBAKIA
Errusiako umeak bere bizitza kontatu digu. /2002-09-20

**599.** ZENBAKIA
Cante Flamenko Txapelketa. /2002-09-27

**600.** ZENBAKIA
600 astean jaso dute aldizkaria etxean. /2002-10-04

**601.** ZENBAKIA
Zikloturista taldeak 25 urte egin ditu. /2002-10-11

**602.** ZENBAKIA
Etxebizitza politika egitamua /2002-10-18

**603.** ZENBAKIA
Arrasate Lehiaketak 2003. /2002-10-25




**604.** ZENBAKIA
Arrasateko eskubaloi taldeak. /2002-10-31

**605.** ZENBAKIA
Umeendako poesia aretoa jarri dute. /2002-11-08

**606.** ZENBAKIA
Salbamenduko txakurrak. /2002-11-15

**607.** ZENBAKIA
Tratu txarren aurkako kanpaina. /2002-11-22

**608.** ZENBAKIA
Aitor Lopez Rekarterekin berbetan. /2002-11-29

**609.** ZENBAKIA
Jostailuen garrantzia. /2002-12-05

**610.** ZENBAKIA
Arrasate Musikalen kontzertuak. /2002-12-13

**611.** ZENBAKIA
Santamasak 2002. /2002-12-20

**Arrasate Irratia**

*Beti airean.*

24 ordu etengabe emititzen



**parte hartu irratian**

**Tel.: 943 71 17 31**
**e-posta: irratia@goiena.com**

**FM107.7 ARRASATE IRRATIA**

## ALBISTEIZANZEN

▸ DEBAGOIENEAN

### Gerra Zibileko bi gorpuzki aurkitu

Redoña auzoko kobazulo baten Gerra Zibilean errepresaliatutako bi gizonen gorpuzkiak aurkitu zituzten. Aranzadi Elkartekoek egin zuten indusketa.

2002-10-03

▸ EUSKAL HERRIAN

### Espainiako Narratiba saria, getxotar bati

Unai Elorriaga 29 urteko getxotarrak irabazi zuen Espainiako Kultura Ministerioak emandako 2002 Narratiba saria, *SPrako tranbia* nobelarekin.

2002-10-08

▸ MUNDUAN

### 187 turista hilik Al-Qaedaren eraso baten

Indonesiako Bali uharteko gune turistiko bateko dantza-leku baten bonba ipini zuen Al-Qaeda taldeak. 187 turista hil ziren, gehienak australiarrak.

2002-10-12

## KULTURA



### Kooperatibistak eta euskara

Kooperatibista euskaldunak Amaia Udal Antzokian batu ziren, urriaren 17an, Kooperatibista Euskaldunen Topaketetan. Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiak eta Emun kooperatibak antolatuta, euskaldunen bilgunea izatea zuen helburu. Horrekin batera, *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak* izeneko liburua ere aurkeztu zuten. Han izan ziren, besteak beste, Lankiko eta Emuneko ordezkariak, MCCko eta Fagor taldeko ordezkariak eta Arrasateko Udaleko ordezkariak. Horiez gainera, liburuaren idazle Nahia Intxausti eta Amagoia Unanue ere Amaia antzokian izan ziren, euren lana gerturatutakoei aurkezten. /ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

ESKUBALOIA

### Eskubaloiko taldeek maila polita erakutsi zuten lehen partiduan

Lau taldeetatik, gazte mailako bigarren taldeak bakarrik galdu zuen denboraldiko lehen norgehiagoka, Arrateren kontra, hain zuzen ere. AGR Arrasatek eta gazte mailako Gatz Museoak erraz irabazi zuten. Seniorreko bigarren taldeak berriz, berdindu egin zuen. /2002-10-18

KULTURA

### Arrasateko I. Cante Flamenko Txapelketa jokatu zen

Arrasateko I. Cante Flamenko Txapelketako finala izan zen, urriaren 26an, Amaia Udal Antzokian. Guztira, 18 parte hartzaile izan ziren txapelketan, eta zazpi iritsi ziren finalera. Txapelketan onena Rocio Ruiz cadiztarra izan zen. Bigarrena, berriz, Jose Lara malagarra. /2002-10-31

'MOBBING'-A, AZKENALDIAN, MODAN DAGOEN PATOLOGIA /2002-10-31



**JOAKIN BEDIA**
LAGUN AROKO MEDIKUA

### Modan dagoen patologia da. Baina, zer da 'mobbing'-a?

**Beste langile batek, edo nagusiak... egindako presioak eragindako patologia da. Ondorio gogorrak izan ditzake. Antsietatearekin lotutako patologia ere izan daiteke.**

ORAIN ETA HEMEN

## Miaketak eta kale istiluak irraileko azken astean

Irraileko azken asteburua ez zen oso lasaia izan Arrasaten. 27an Gudari Eguna zela eta, zeuden ospakizunak galarazi zituen Ertzaintzak; gero, kale istiluak izan ziren.

Hurrengo egunean, Guardia Zibila Arrasaten izan zen, miaketak egiten. Ecuador Bidaiak agentziak Otalora kalean duen bulegoa miatu zuten. Agentziako kristalezko atea apurtu eta agentziaren aurreko espaloia moztu egin zuten. Gauerdira arte, agentzia miatzeko epailearen baimenaren zain egon ziren. /2002-10-04




**Guardia Zibila, miaketa egiten.**



# AZAROA



*"Taldean uste dugu une hau gozatzeko dela; lehen ere nahikoa sufritu dugu"*

**A. LOPEZ REKARTE** / FUTBOLARIA

2002-11-29



*"Arrasateko notariotza hiriburu batekoarekin pareka daiteke "*

**J. L. AMERIGO** / NOTARIOA

2002-11-08

## HILEKO ESALDIA

**"Margolan baten interesa duenak egilearekin harremanetan jartzearekin nahikoa du"**

**KONTXITA ARANA** / MARGO TALDEKOA

2002-11-22

## HILEKO DATUA

**40**

**ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN TXAKURRAK**

Arrasateko Udalak jakinarazi zuenez, arriskutsuak izan daitezkeen berrogei txakur daude erroldatuta herrian. /2002-11-15



### Emakumeok Bizi Dugun Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Udal kanpaina abiaraziko dute tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko. Hilaren 25ean, emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko nazioarteko eguna izan zen. Arrasateko Udalean, iaz, 40 dei jaso zituzten. Horietariko batzuk informazioa eskatzeko izan ziren . Udalak laguntza telefonoa ireki du, eta hogeita lau orduko zerbitzua emango du: 943 79 09 00. /2002-11-22

**HAUR POESIA ARETOA MONTERRON LIBURUTEGIAN**

Galtzagorri elkarteak erakusketa interaktiboa jarri zuen, umeek jolas egin, poesia entzun eta goza dezaten. /2002-11-08

**HIRU ERREGAI BILTEGI CERRAJERAN**

Cerrajerako etxeen lanak dezente atzeratzeko arrazoia lurpean aurkitu zituzten hiru erregai biltegiak dira. /2002-11-08

## AIPAGARRI



**ENEKO BARBERENA**
**Idazlea**

*Bolo-Bolo* aldizkariaren Azken Agurren Lehiaketako lehenengo saria irabazi zuen. Eta Durangoko Azokarako liburu bat argitaratuko du. /2002-11-15



**MERTXE VALDIVIESO**
**Txakur jabea**

Mertxeren *Lur* terranova txakurra salbamenduko laugarren maila eskuratu duen euskal txakur bakarra da. Estatuan lauk lortu dute maila hori. /2002-11-15



**ZIGOR JIMÉNEZ**
**Atleta**

Orain arte Zigor duatloietan eta triatloietan ikusi dugun arren, aurten Donostiako Maratoian parte hartuko zuela erabaki zuen arrasatearrak. /2002-11-22

Uarkape
jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta.

*2003a ere oparoa izan dadila!*

Otalora lizentziatua 10
Tel.: 943 77 20 04
ARRASATE

# ABENDUA



*"Ez nuke inola ere Agatha Ruiz de la Pradarekin lanik egingo"*

**MAIDER ARRIARAN** / DISEINATZAILEA
2002-12-20



*"Gizarte indibidualista horren aurrean, komunikatu behar gara"*

**ENEKO BARBERENA** / IDAZLEA
2002-12-05

## HILEKO ESALDIA

**"Kooperatibetako zuzendariek euskara lehentasun moduan hartzeko garaia iritsi da"**

**J.R. ELORZA** / GIZA BALIABI. ZUZEND.
2000-12-13

## HILEKO DATUA

**45**

**DUELA 45 URTE ANTZEZTU ZUTEN 'LOS GAVILANES'**

Hilaren 16an, 45 urte bete ziren Arrasaten, Gurea zineman, *Los Gavilanes* zarzuela jokatu zutela. Urteurren berezia! /2002-12-13



## Jokin Zaitegi sariketa, berrituta

AEDk antolatzen duen Jokin Zaitegi Itzulpen Sariketak 16 urte bete ditu aurten. Hamaseigarren urtearekin batera, antolatzaileek lehiaketa horren gaineko hausnarketa egin zuten, eta, horren ondorioz, berrikuntzak ekarri zituzten.

AEDk eta Elkar argitaletxeak Jokin Zaitegi Sariketa Literaturako Nobel Saria Beka sortu zuten. Hau da, urteko Nobel saria eman dioten idazlearen lan bat aukeratu zuten, egileen eskubideak erosi zituzten, eta Itzulpen Lehiaketan irabazle ateratzen denari, aukeratutako liburu horren itzulpen osoa eskatu eta finantzatuko dute. Interesatuek liburu horren –Imre Kertész-en *Sorstalanság* liburuaren– lehenengo hiru orrialdeak euskaratu beharko dituzte, urtarrilaren 17a aurretik. /I.B.2002-12-05

**BASERRIETAKO ANTZINAKO TRESNEN KATALOGOA**

↑ Santamas Komisiñuek baserrietako antzinako tresnen katalogoa urtarrilerako bukatuko du. /2002-12-20

**KULTURA ETXEKO LANAK GELDITU EGIN ZITUZTEN**

↓ Ospitale zaharreko kultura etxeko lanak gelditu egin zituzten, eraikinaren hormak gaizki zeudelako. /2002-12-13

## AIPAGARRI



**JON APERRIBAI**
**Atleta**

Arrasateko Jon Aperribai atletari Euskadiko Duatloi Txapelketan Euskadiko Onenaren saria eman diote. Zuhaitz Ezpeleta izan da bigarren. /2002-12-20



**JABIER MERCADER**
**Irakaslea**

Arrasaten bizi den Jabier Mercader gasteiztarrak Kutxako Ekintzaileen sari bat irabazi zuen. Jabierrek egin duen aldizkari digitalak jaso zuen saria. /2002-12-05



**SERGEI OSOKIN**
**Akordeoilaria**

Sergei Osokin errusiarrak Nazioarteko X. Akordeoi Txapelketako lehen saria eskuratu zuen. Hilaren 4tik 8ra, zortzi akordeoilari lehiatu ziren. /2002-12-13



KURRUXKO

Javier Ayani Aramburuzabalaga
*Okindegia - Urdaitegia - Gozotegia*



*Bañez Doktorea 12 • ARRASATE*
*Tel.: 943 79 22 57*

ERRETRATUZAHARRA

# Santa Marinako kantari gazteak



Hara hor zelako neska-mutiko koadrila ekarri dugun gure tartera 2002. urtea agurtzeko! Santa Marinako neska-mutikoak dira; 1970. urteko Gabon egunean kantuan irten ziren, kalerik kale, Santa Marinan bertan lehenengo eta herrian geroxeago. Argazkian ikusten duzuenez, gainera, jaiotza ederra ere eraman zuten aldean.

Honako hauek agertzen dira argazkian. Beheko ilaran: 1-Juan Pedro Zabala; 2-Felix Elorza; 3-Mertxe Fernández; 4-Begoña Zazo; 5-Marimar Sarabia; 6-Felix S. De Gordoa; 7-Iñaki Ibarrondo. Bigarren ilaran: 8-Axen Azkarate; 9-Ramon Azkarate; 10-Josu Arkauz; 11-Fernando Ugarte; 12-Aitor Lazpita; 13-Jabi Sagasta. Hirugarren ilaran: 14-Luis Iñarra; 15-Ignacio Iñarra; 16-Ibone Azkonaga; 17-Mariatxen Ugarte; 18-Maite Azkoaga; 19-Charo Azkoaga; 20-Angel Elorza; 21-Julian Feo; 22-Jose Ramon Ugarte. Laugarren ilaran: 23-Juli Serrano; 24-Miren Iñarra; 25-Amaia Feo; 26-Roberto Zazo; 27-Mari Carmen Zubialdea; 28-Maria Nieves Vélez; 29-Asun Serrano; 30-Ramon Arkauz; 31-Itziar Arregi; 32-Itziar Lazpita; 33-Lourdes Zabala; 34-Mertxe Exposito. Bosgarren ilaran: 35-Marixabel Azkonaga; 36-Josefina Ugarte; 37-Olatz Arkauz. Eta, azkeneko ilaran: 38-Eli Ercilla; 39-Mari Carmen Herrero; 40-Trini Feo; 41-ezezaguna; 42-Pilar Martínez; 43-Maribel Tricio; 44-Josu Gutiérrez; 45-Codes Martínez; 46-Jesus Mari García; 47-Maria Angeles Lazkano; 48-Jose Ramon Marañón; 49-Arantza Sagasta; 50-Arantza Garai.

**Argazkia eta Informazioa**:
B. Azkarate
**Urtea**:
1970. urtea







ANE LASAGABASTER
HORTZ KLINIKA

- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta inplantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora, 18 solairuartea D • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita


MENDIZABAL
Okindegia
Egunero zure alboan
Seber Altube 2. ARRASATE. Tel.: 943 79 89 60


AURTEN... OPARI MAGIKOA!
DEITU ORAIN!
902 45 12 12
TRUK
902 45 12 12
IRUÑA • EUSKAL HERRIA
txan magoa
magiaren munduan txan magoarekin
artxila murtxila!
36€
bidalketa gastuak barne
kamixeta!
kutxa magikoa
KUTXA MAGIKOA
Sar ezazu TXAN barruan eta desagertu egingo da!
TXANen KAMIXETA
Neurriak: 4-6-8-10 urte
LOR EZAZU TXAN MAGOAREN MAGIA KITa!
BIDEOA
TXANek magia egiten irakatsiko dizu!
Ikas itzazu magoen trikimailu guztiak!
ikasi magia!
makilatxo magikoa
MAKILATXO MAGIKOA
Magia egiteko ezinbestekoa!
karramarro
euskal herria
basque country


Eguberri On!
DENOK
Agua de Luna
Opari Bereziak:
9,99
eurotik aurrera
Aurkezpen Esklusiboak